

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	HARTZAILEEN ERREGISTROA
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	<p>Osakidetza – Euskal osasun zerbitzua / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza</p> <p>– Araba, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz</p> <p>Osakidetzako Datuen Babeserako ordezkaria:</p> <p>– Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz</p> <p>– DBO-DPD@osakidetza.eus</p>
Tratamenduaren xedea	Giza jatorriko substantzien eta organoen banaketa eta inplanteak kudeatzea. Odol-transfusioak kudeatzea. Organoen eta giza jatorriko substantzien transplanteen zain dauden paziente-zerrenden plangintza eta kudeaketa; transplanteak eta transfusioak jaso dituztenen jarraipena egitea eta beharrezkoak diren neurriak hartzea.
Datuak gordetzeko epea	Iraunkorra. Edo, gutxienez, 30 urtez, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen eta 1088/2005 EDaren arabera.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	<p>- Interesdunaren adostasuna.</p> <p>- Lege-eginbearra betetzea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean, ekainaren 26ko 8/1997 Legean (Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa) ezarritakoaren arabera.</p>
Hartzaileak	Giltzurrunetako gaixotasun kronikoan dituzten pazienteen datuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari lagako zaizkio.
Eskubideak gauzatzea	<p>Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza - Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita.</p> <p>Era berean, abiarazitako ekintzari uko egiteko eskubidea izango du, datu pertsonalak tratatzeko baimena ezeztatuta.</p> <p>Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.</p>
Datuen jatorria eta	Datuak interesdunak berak eta Osakidetzako langileek eman dituzte.

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA**kategoriak**

Datuak: identifikagarriak; ezaugarri pertsonalak adieraztekoak; osasunarekin loturikoak.